

PEDRO GANDASEGUI PP-KO ZERRENDA BURUA

“Ez dira ideak ilegalizatu, ekintza eta jokabide antidemokratikoak ilegalizatu dira”

■ PP-ko zerrenda buruaren ustez, Udaletxeari beste norabide bat eman behar zaio, eta bere lana hernaniarren benetako arazoak konpontzera bideratu behar da: “Udaletxe batek herritarren beharrei erantzun behar die”.

PEDRO Gandasegui izango da PPko alkategaia igandean egingo diren Udal Hautskundeetan. Udaletxeak beste norabide bat behar duela uste du eta Udala herritari hurbiltzea proposatzen du horretarako bide bezala.

Pasaian zinegotzi izan den donostiarraren ustez, berez egokiena izango zen Hernaniar bat izatea PPko zerrendaburu, baina, dio egoera politikoak hori ezinezkoa egiten duela. Agindu du herritarrek aukeratzeko badute, datozen 4 urteetan Hernaniko Udaletxean izango dela.

■ Zein dira PPren helburu nagusiak datorren legislaturarako?

PEDRO Gandasegui: Partidu Popularrak herritarrekin konprometitutako Udaletxea nahi du. Bultzatu ditzala Hernaniko desarroilo sozial eta ekonomiko eta kezkatu dedila herritarren ongizateaz.

Uste dugu, Udaletxeari beste norabide bat eman behar zaiola, eta bere lana hernaniarren benetako arazoak konpontzera bideratu behar dela. Udaletxe batek herritarren beharrei erantzun behar die. Hernanik baditu nahiko arazo, Udaletxea beste gauza batzuetan aritzeko.

Hernanik ere Gipuzkoako herri gehienek dituzten arazo eta behar beretsuak ditu: enpleoa, etxebizitza, industrializazioa, gaztedia, eta horiek bultzatzen saiatuko gara. Helburu ekonomiko eta sozialak oso garrantzitsuak dira, noski,



Pedro Gandasegui PPkozerrenda burua Hernanin.

baina, helburu demokratikoak eta pakea denen gainera daude, eta gogotik saiatuko gara helburu horien alde.

■ Zein neurri proposatzen dituzu zure programa aurrera ateratzeko?

Gure helburuak aurrera ateratzeko Partidu Popularrak proposatzen dituen neurriak Udaletxea herritarrei hurbiltzearen ingurukoak dira: hernaniarren eta Udalaren arteko

komunikazioa hobetzea. Udaletxearen errekurtsoak erabili behar dira herriko zerbitzuak hobetzeko, arlo guztietan.

■ 1999ko hauteskundeetan gehiengo absolutua lortu zuen sektoreari galerazi egin zaio parte hartzea. Nola helduko dio Pedro Gandaseguik horri?

Nere ustez hori horrela enfokatzeko erabat okerrekoa da. Epaileek legeak kontuan har-

PEDRO GANDASEGUI

Pedro Gandasegui Donostiarra da eta 55 urte ditu. Ezkondua eta bi umeren aita da. Gandasegui Zuzenbidean lizentziatua da eta lanbidez sektore bankarioan ibili da. Legegintzaldi honetan, Pasaiako zinegotzi da Partidu Popularretik.

tuta erabaki dute Batasuna ETaren beso politikoa dela, eta bere ondorengoek ere ezin dutela egon erakunde demokratikoetan. Neri iruditzen zait ridikuloa dela gure demokrazia desegin nahi dutenak eta demokraziaren oinarriak jotzen dituztenak, erakundeetaz aporetzatzea beren helburuetarako.

Hortik aurrerakoa, gauzak oker ikusi nahi izatea da. Demokrazian terroristek ez daukate lekurik. Eta herritarrek bilatu beharko dute, aurkezten diren aukeren artean, zein hurbiltzen den gehiago beren ideetara. Izan ere, ez dira ideak ilegalizatu, batzuk saldu nahi duten bezala, ekintza eta jokabide antidemokratikoak ilegalizatu dira.

■ PPK zein emaitza espero du Hernanin hauteskunde hauetan?

Arriesgatua iruditzen zait zer emaitza izan litezkeen esaten hastea. Herritarrek izango dute azkeneko hitza eta berak erabakiko dute zeinek ordezkaturiko dituzten Udaletxean.

Gauzak horrela, hautes-

PPREN PROPOSAMEN ETA PLANTEAMENDU BATZUK

NORABIDE ALDAKETA UDAL GESTIOAN

Udaletxeari beste norabide bat eman behar zaiola, eta bere lana hernaniarren benetako arazoak konpontzera bideratu behar dela. Udaletxe batek herritarren beharrei erantzun behar die.

HELBURU SOZIO-EKONOMIKOAK ETA HELBURU DEMOKRATIKOAK

Hernanik ere Gipuzkoako herri gehienek dituzten arazo eta behar beretsuak ditu: enpleoa, etxebizitza, industrializazioa, gaztedia, eta horiek bultzatzen saiatuko gara.

Helburu ekonomiko eta sozialak oso garrantzitsuak dira, noski, baina, helburu demokratikoak eta pakea denen gainera daude, eta gogotik saiatuko gara helburu horien alde.

kunde hauetan zailagoa izango da zer emaitza izan litezkeen tankera ematen. Hala ere, uste dut aurreko emaitzak hobetu genitzakeela eta 2-3 zinegotzi atera genitzake.

Noski gure helburua da hernaniarren artean dugun babesa oraindik eta gehiago haunditzea, eta Partidu Popularraren ahotsa entzutea Udaletxean.

■ Hauteskunde ondoren PP PSE-EEekin indarrak biltzen saiatuko al da Hernanin, beste herri askotan gertatu litekeen bezala?

Urrutitxo joatea da emaitzak jakin aurretik hauteskunde ondorengo paktuei buruz hitz egitea. Gure alderdiak garbi utzi izan du beti hitzarmenak lortzeko prest dagoela pakea eta askatasuna lortzeko konpromisoa duten alderdiekin. Oinarria da gure Konstituzio eta Estatutua errespetatzea, eta plurltasunaren alde egitea, mehatxu eta koakzioerik gabe. □

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

brintza
BRINTZA, S.L.
Juan de Urbietta 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI

LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUA, INBERTSIOAK

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Kardaberaz 39
Tel: 943 55 27 87
20120 HERNANI

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia
beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

HAUTESKUNDEAK

Hitzaldia gaur: "Emakumea eta berdintasuna Udal Hauteskundeetan"

UDALEKO Berdintasun sailak antolatuta mahai ingurua dago gaur Biterin, datozen Udal hauteskundeetan berdintasunaren gaian Alderdi bakoitzaren ikuspuntua eztabaidatzeko. Oraingo joango direla konfirmatu duten politikariak: Bildu Hernanitik Mertxe Etxeberria, EA-EAJ-tik Iñaki Arratibel eta EB-IUtik Txema Mercado. Hitzaldi hau Berdintasun sailak antolatu duen bigarrena da emakumea eta parte hartzeari buruzko ekitaldien barruan.

Mahai ingurua gaur da, arratsaldeko 19:30etan Biteri kultur etxean. □

Biteriko antzerki ikastarokoan emanaldia bihar Kixkal tabernan

BIHAR antzerki emanaldia izango da Kixkal tabernan, Biteri kultur etxeko antzerki ikastarokoan eskutik. Guztira 11 ikasle dira eta monologoak eta binakako elkarrizketak egingo dituzte, Ruth Martin irakasleak Kronikari adierazi dionez. Antzeulan bakoitzak du bere historia, elkarren artean nolabaiteko lotura baldin badute ere.

Antzeulan honen helburua da Biteri kultur etxeko ekintzak herrira ateratzea eta Biteritik kanpoko beste jende baten aurrean ere azaltzea ikastaroan zehar egindako lana. Antzerkia Kixkal tabernan da, bihar, osteguna, iluntzeko 22:00etan. □

Bildu Hernanik bilera deitu du gaur eta ekitaldi politikoa bihar

BILDU Hernanik bilera deitu du gaur, Hernaniko taldeekin, datozen Udal Hauteskundeetan bueltan. Bileran Herri Konpromisoa azalduko dute eta programa hori aurrera ateratzeko zein bide segitzeko asmoa duten ilegalizazioaren ondoren. Bilera, arratsaldeko 20:00etan da Biterin eta Bildu Hernanik azaltzeko dei egin die herriko kirol talde, auzo elkarre, kultur talde eta abarrei.

Bestalde, bihar ekitaldi politikoa deitu du Bildu Hernanik Plaza Berrian, arratsaldeko 19:30etan. Ostiralean afora antolatu du Oialumen eta txartelak salgai daude Oinddi, Garin eta Txilin, 12 eurotan. □

Puig-eko etxeak bi aste barru entregatuko dituzte

■ Guztira 36 etxebizitza dira, Babes Ofizialekoak.

PUIG-eko 36 etxebizitza bi aste barru entregatuko dituzte, obrako arduradunek Kronikari esan diotenez. Etxebizitza hauek Udalak bultzatutakoak dira eta hernaniarrentzat izango dira. Obrak iazko otsaila inguruan hasi ziren eta dagoeneko bukatuak daude etxeak. Obra arduradunek Kronikari esan diotenez Delegazioko baimen bat falta da eta hura iristean beste astebete inguru behar da etxeak jabeen entregatzeko moduan izateko. Bihuru aste barru etxeak entregatuak izango dira.

Puig-eko urbanizazio guztia, berriz, 3 bat hilabete barru bukatua egon liteke. □



Puig-eko babes ofizialeko etxeak.

JASOTA BEZALA

JOXAN REKONDO? EZ, ESKERRIK ASKO!!

Badirudi azkenaldian Hernanin "memoria galtze atipikoaren" gaisotasuna hedatu dela. Gaisotasun hau sendatzeko erarik eraginkorrena memoria astintzea da eta hori da gutun honen helburua.

1991.urteko garaiak ekarri nahi nituzke gogora. Urte horretako ekainean, gerora oso ezaguna egin zen Joxan Rekondo Hernaniko alkatezara iritsi zen, nahiz eta bere alderdia (EA) hauteskunde horietan hirugarren indarra izan (HB 3258, PSOE 1696, EA 1476). Ezin da ahaztu alkatezara iristeko bide horretan, Euskal Herriarekin bukatu nahi duten espainiar faxistak izan zituela lagun fin (PSOE). Garai gogorak izan ziren, urtetan Hernanin alde egindako lan guztiak izugarriko atzerapausua emango zutenaren susmoa baikenuen. Eta hala izan zen, atzerapausu izugarria!!

Rekondorekin, maila guztietan egin zuen Hernanik atzera eta adibide batzuk gogoratzea komenigarria izango litzateke.

Hernaniko Udala, eredugarri zen udal parte hartzailea izatetik udal itxia izatera pasa zen. Ezin dugu ahaztu, garai horretan euskararen normalizazioa emandako atzerakada: euskaltegiari eta euskararen alde diharduten taldeei diru laguntzak kenduz, euskarazko irratia lokalik gabe utziz,...

Ezagunak izan ziren ere herriko jaien inguruan Rekondorekin izandako liskarrak. Jai Batzordea herriko jaien antolakuntzatik bota eta Hernanin inoiz egin diren jai ez parte hartzaileen antolatuz: herriko taldeek jarritako txosnei oztupoak ipiniz, herriko dantza taldeei ez ordainduz, gazteentzat ekintzak antolatzen zituen Gazte Asanblada erasotuz,...

Auzo elkarrekin ere, ez zen atzera geratu. Auzo-herri politika

sortzailego bat burutzeko gai izan beharrean hamaika liskar izan zituen herria hobetzeko proposamen eta asmo onei muzin eginez. Azken batean, herriko bizimodua kakaztu eta ozpintzeko saiakera ugariren testigu izan ginen. Denda txikien alde egin beharrean, kanpoko interes ekonomikoen diruaren hotsari jarraituz eta herriko nortasuna galtzera eraman lezakeen bideari utsiz.

Maiatzaren 25ean aukera paregabea dugu egoera horretara ez bueltatzeko. Bildu gaitzen Hernani justuago baten alde, euskararen alde, presoen alde, jai herrikoien alde, herrigintzaren alde, Euskal Herriaren alde. Hartu ditzaugu BILDU HERNANIN hautes paperak eta bete ditzaugu hautes hontziak milaka bozkez. Hori delako Rekondori eman diezaiokegun zaplastekorik haundiena!! Bildu Hernani!!

GORKA LORAN



Xabat Otxotorena Erreterriako helmugan sartzen.

Xabat Otxotorena Gipuzkoako txapelkun gelditu da Erreterrian

■ Hamaika txirindulariko tropeletik alde egin zuen Arkaleko igoeran eta bakarrik iritsi zen helmugara.

XABAT Otxotorena txirindulari hernaniarrak lehen garaipena eskuratu du afizionatuetan, Gipuzkoako txapelketan. Joan den igandean jokatu zen 110 kilometroko proba. Zortzi txirindularik alde egin zuten eta Xabat Otxotorena eta beste bi txirindularik bat

egin zuten zortzikotearekin. Etapa bukatzeko 15 kilometro inguru falta zirela alde egin zuen Otxotorenak, Arkaleko portua igotzen ari zirela eta bakarrik iritsi zen Erreterriko helmugara. Xabat Otxotorenak 5garren denboraldia du hau afizionatuetan. □

■ HITZ BITAN

✓ KONTZERTUA BITERIN

'Tenoclock' taldea gaur Biterin. Hernaniko Musika Eskolak eta Udal Hezkuntza Batzordeak kontzertua antolatu dute gaurko. *Tenoclock* taldeak emango du kontzertua eta 10 abesti joko dituzte. *Tenoclock* taldeak "inprobisazio Kombo" bat sortu nahi du eta horretarako 8 musikari dira: Arza (pianoa), Luzuriaga (bajua), Muñoz (gitarra), Azkarate (bateria), Masach (tronpeta), Izarra (saxoa), Dominguez (tronboa) eta Goialde (narratzailea). Gaur, goizeko 11:00etan, Biterin.

✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Maria Jesus Iartzari elkarrizketa. Molotoff irradian *Gure Baserriak*. *Hernani* liburuaren egileetako bati elkarrizketa egingo dio gaur BerezBai irratsaioan. Elkarrizketa 17:00etatik 18:00etara izango da.

✓ GALDUTAKOAK

Mikropatina galdu da Biteri Plazan. Joan den ostiralean mikropatina galdu da Biteri Plazan. Azpian Gorka izena jartzen dio. Bilatu ezkerre deitu 943 331856 telefonora. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Aizpuru
Latzunbe Berri 11
☎ 943 336077
- ▶ Guez: Atxa-Orbea
Lasarte. Hipodromo 6
☎ 943 363549

LAN ESKAINTZA

TOPAGUNEAK EKIPO INFORMATIKOETAKO TEKNIKARIA behar du Lan Baldintzak: - Urtebeteko kontratu luzagarria egun osoko dedikazioaz. - Lan lekua, Andoainen. Informazio gehiagorako: **Dobera Euskera Elkartera** (Larramendi 11) edo deitu **943 33 27 99 ra**.

IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu goizez telefono honetara: **943 556706**